

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

PROBA OROKORRA

2018ko PROBA



IRUZKIN

PROBA

ERANTZUNAK





Testu honetan oinarrituta, egizu testuaren ostean datorren jarduera.

Esnatu eta oraindik adurra darizula, besoa ahal bezala ondoko ohe-mahaira jaurti eta iratzargailu demonioa gelditzen duzu —gaitz erdi!—. Hurrengo pausoa? Bai, beso baldar bera, kanabera bat balitz bezala, mahaira jaurtitzea, ea sakelakoak tenk egiten duen. Behin mugitzen ez den objektu bat arrantzatuta —kostata, gainera—, azken pauso xebrera iristen zara: segapotoa zure parean desblokeatzea eta begiak trepeta ahalguztidunaren argi itsugarriari ohitzea. Lehenengo begi bakar batekin begiratzen duzu pantaila; gero argitasuna jaisten duzu; eta, azkenean, zerbait irakurtzeko gai zara, bejondeizula!

Orain ez ezazu ez jakinarena egin: erritual hori zure egunerokotasunaren zatia da; ondo ezagutzen duzu. Gaztea bazara ez duzu aitzakiarik; egunero egiten duzu. Baina, trankil, lagun! Normala da: sare sozialen artaldeko arkumetxo bat gehiago zara.

Eta ez dakizu zein mementotan sartu zinen artalde horretan; duela ez hainbeste lasai asko zenbiltzan zure belardian bazkatzen. Orain, aldiz, sare sozialen belardi zabalean bazkatzen duzu. Arratsaldero zure Instagramean itxurakeriatan zabilta —gaztelaniako “postureo” delako hitza baino askoz ere jator eta zehatzagoa dugu euskarari, eskerrak!—, eta besteen oniritziaren zale amorratua zara.

Are gehiago, sare sozialen artaldean sartu zinetik zure bizitza zeharo aldatu da. Gogoan duzu nola ezagutu zenuen Miren? Bai, Mirentxu, zure neska-laguna! Non eta Twitterren, motel! Hainbeste “gogoko dut” ematen zizkizun neska hura zen, ostegun-gau batean harekin bukatu zenuen arte. Baina lasai berriro; agidanez, egun, sare sozialen bidez ligatzen da. Zure artaldekideek berdina egiten dute: ez zara ardi beltza.

Eta orain sekretu bat kontatuko dizut; hurbildu belarria eta ez esan txintik ere beste arditxoei: ez dago ardi beltzik. Guztiok zure artaldearen parte gara. Horregatik, jai duzu ardi beltzak bilatzen; akaso, ardi grisen bat aurki dezakezu. Ardi grisak ez dira sare sozialen zale sutuak, baina ez dute diktadura honen atzaparretatik ihes egiterik. Azken batean, ardi horiek grisak dira Facebookik edo Twiterrik ez izan arren, gauero bideo gogaikarriren bat bidaltzen dizutelako Whatsapp bidez.

Besterik gabe, sare sozialen menpekoak gara. Eta gaurkoan ez dut menpekotasun horren eraginaren inguruan hitz egin nahi, ez baitut oso argi egoera honek zer aurki eta zer ifrentzu dituen. Baina inolako zalantzarik gabe esan dezaket sare sozialen menpe gaudela, eta hori ukatzen dutenak, hain zuzen, sare sozialen artaldean gehien bazkatzen duten arkumeitsuak dira.



JARDUERA

Hedabideetan, gaur egun, irakurleek aukera dute beren iruzkinak idazteko eta zuk horixe egingo duzu: Xabi Marrodani erantzungo diozu.

Goiko testua oinarritzat hartuta 25-30 lerroko testu bat idatziko duzu eta zeure iritzia emango duzu gai horri buruz. Hala ere, idazleak adierazitakoaren kontra azalduko zara: ez zara iritzi berekoa, ez zaude ados. Testuak, gutxienez, 200 hitz eduki behar ditu (10 puntu)

- **Antolatu testua honako elementu hauekin:**
 - o Sarrera-paragrafoa
 - o Zure ideiak garatzeko bi paragrafo
 - o Azken paragrafoa, ondorioetarako.

- Ez egin testuaren laburpena
- Adierazi zure iritzi pertsonala
- Gogoratu beheko elementuak baloratuko direla:
 - o Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
 - o Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita ote dauden, errepikapenik gabe).
 - o Perpausen eta paragrafoen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
 - o Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna
- Astia izanez gero, zure ideiak antolatzen lagunduko dizun zirriborroa egin dezakezu.
- Zirriborroa azterketarekin batera entrega dezakezu, nahi izanez gero.
- Idazkia bukatzean, entregatu aurretik gainbegiratu.



EBAZPENA IRUZKINA (2018ko maiatza)

Testu idatzia zuzentzeko irizpideak.

Deskripzio analitikoaren araberako puntuazioa.

	ADIERAZLEAK	Oso Ondo (0,7- 1 ptu)	Ondo (0,5- 0,6 ptu)	Gaizki (0,2- 0,4 ptu)
Egokitasuna (2 puntu)	– Testuak hizkuntza- erregistro egokia du. Eskatutako hitz kopuru minimoa du			
	– Testua ondo egokitzen zaio proposatutako helburuari eta eskatutako testu generoari.			
	Egokitasuna	(.....puntu)		
Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)	– Egitura argia eta zehatza du: sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere adierazi du.			
	– Gaiari lotutako iritziak adierazten ditu. Informazio esanguratsua ematen du.			
	– Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.			
	– Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu. Puntuazio zeinuak ere ondo erabiltzen ditu.			
	Koherentzia eta kohesioa	(.....puntu)		
Lexikoa, sintaxia morfologia eta ortografia (4 puntu)	– Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.			
	– Arau morfologikoak betetzen ditu: deklinabidea, aditzaren denbora, aspektua eta komunztadura			
	– Arau sintaktikoak betetzen ditu. Esaldien egitura zuzena eta egokia da.			



IRUZKINA

COMENTARIO DE TEXTO

	– Ortografia arauak betetzen ditu			
	Lexikoa, sintaxia, morfologia eta ortografia	(.....puntu)		
	GUZTIRA		

Deskripzio sintetikoaren arabera puntuazioa

8-10 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Eskatutakoari lotzen zaio (helburua, gaia, hitz kopurua...) • Erregistro egokia du. • Aukeratutako edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako, ez dago errepikapenik eta gaiak aurrera egiten du. • Ideiak eta argudioak ondo garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. • Lokailuak, antolatzailek eta egitura sintaktikoak egokiak eta aberatsak dira. • Ez du akats morfologikorik ezta ortografikorik ere.
7-8 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Eskatutakoari lotzen zaio. Erregistro egokia erabiltzen du. • Ideiak et argudioak garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. • Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (menpekoak, lokailuak...). • Testuak ez du ia akatsik, baten bat baina ez sistematikoak eta ez dute ulermena eragozten.
5-6 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbait akats sistematiko ditu edukian edo forman, Hala ere, akats horiek ez dute oztopatzen testua ulertzea. • Ideien arteko koherentzia eta kohesioan dituen gabeziek ez dute oztopatzen ulertzea. • Argudioak edo ideiak ez daude guztiz garatuak, batzuetan jauziak antzeman daitezke • Egitura sinpleak erabiltzen ditu oro har. • Ortografian eta puntuazioan akatsak daude baina ez oso larriak.
3-4 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Ez zaio eskatutakoari lotzen. • Ez du hitz kopuru minimoa. • Ulergarritasuna oztopatzen duten ideien arteko jauziak, erreferentzia galtzea... • Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak antzematen dira. • Gabezia handi samarrak komunikazioari eta hizkuntzaren ezagutzari dagokienez.



IRUZKINA

COMENTARIO DE TEXTO

	<ul style="list-style-type: none">• Ortografian, arruntak diren hitzetan ere akats larriak.
1-2 puntu	<ul style="list-style-type: none">• Eskatutakoari ez zaio lotzen. Hitz kopuru minimoa ez du bete.• Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu• Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan egiten dituen akatsak ulermena eragozten dute.• Nabarmen geratzen dira komunikazioari eta hizkuntzari lotutako gabeziak.• Oinarrizko akats gramatikal larriak egiten ditu: ergatiboa, komunztadura, perpaus osagarriak.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK

- 2.7. Testu-mota hauen berezko eskemen arabera ideien banaketa planifikatzea, informazioa koherentziaz antolatuz.
- 1.5. Multzo honen berezko idatzizko testu egokiak, koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak sortzea.
- 2.9. Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz ahozko eta idatzizko testuak sortzea, euskarri desberdinak erabilita.
- 4.8. Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz